


# IKUSIZ IKASI

X SEMANA DE CINE ESPIRITUAL

## EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK



Pelikula: **La familia Bélier**  
Zuzendariak: **Eric Lartigau**  
Herrialdea: **Francia**  
Urtea: **2014**  
Generoa: **Comedia. Drama**  
Gidoia: **Victoria Bedos, Thomas Bidegain, Eric Lartigau**  
Aktoreen zerrenda: **Louane Emera, Karin Viard, François Damiens, Luca Gelberg, Roxane Duran, Eric Elmosnino, Ilian Bergala, Clémence Lassalas, Bruno Gomila, Mar Sodupe.**

Bélier familiako kide guztiak, 16 urteko Paula izan ezik, gorrak dira. Berak interprete lanak egiten ditu gurasoentzat, batez ere familiak duen baserriko gorabeherei dagokienez. Institutuko mutil bat gustuko izanik honek koruan izena ematen duenez berak gauza bera egiten du. Han jabetuko da kanturako duen talentuaz... (FILMAFFINITY)

ANTOLATZAILE • ORGANIZA:



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

PATROCINA • BABESLEA:



**ibaizabal**  
www.ibaizabal.com

[HTTP://IKUSIZIKASI.BIZKELIIZA.ORG](http://ikusizikasi.bizkeliiza.org)



# EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK

## 1. NOLAKOA DA PERTSONAIA BAKOITZA

Nabarmendu pelikulako pertsonaia bakoitzak dituen balioak:

Paula   
Aita   
Gabriel

Ama   
Mathilde   
Thomasson Jn.a

Batez ere, norekin nator bat? Zergatik?

Norekin ez hainbeste? Zergatik?

## 2. HITZA-IDEIA-ESALDIA

Pelikula ikusi ondoren, hausnartu eta idatzi:

- Deigarri gertatu zaizun hitza
- Ideia esanguratsua
- Pelikula ulertzen lagundu dizun esaldia

Pelikulan, hainbat gai lantzen da.  
Talde txikian, batera jarri bakoitzaren ekarpenak.

Gehien errepikatu diren ideiak eta zuretzat garrantzitsuenak  
direnak kontuan hartuta, idatzi pelikularen laburpena.





## 3. FAMILIA, DESGAITASUNA...

### 3.1 FAMILIA:

Beiler familiaren istorioak primeran erakusten digu familiaren eginkizuna zein den; aldi berean, elkarri laguntzea ezinbestekoa dela islatzen du.

- "Maitasuna" beraien hartu-emanetan eragile nagusia izan dela islatzen duten pelikulako egoera batzuk gogoratu.
- PENTSATU ZEURE FAMILIAN:
  - "Maitasuna" zure familiako hartu-emanetan eragile nagusia izan dela islatzen duten egoera batzuk gogoratu.
  - Egoera horietan, nork behar du nor? Zergatik? Zuk zeuk, nola jokatu izan duzu?

### 3.2 DESGAITASUNA:

Beiler familiak naturaltasunez aurre egiten dio bere desgaitasunari, hainbat muga ekartzen badizkio ere. Desgaitasuna, osoko arreta lantzeko aukera izan daiteke. Ikus dezagun! Banan-banan, zentzumen guztietan arreta jarriko dugu: ikusmenean, entzumenean, ukimenean, dastamenean eta usaimenean.

- Zer sentitu dugu? Zergatik?

## 4. PELIKULA ERREPASATUZ

Eszena 15.13min – 16.08min

*Aita: Zer gertatzen da?*

*Paula: Ezer ez, ez da ezer pasatzen.*

*Aita: Jakina baietz; zerbañt gertatzen zaizu.*

*Paula: Izan ere... hauteskundeen kontua ez dut uste ideia ona denik.*

*Aita: Zergatik? Gorra naizelako?*

*Aita: Gorra izatea ez da oztopoa. Nortasuna da.*

*Paula: Baina, politika egiteko, ez da oso praktikoa.*

*Aita: Eta Obama, zer? Begira zein beltza den.*

*Paula: Ez du zerikusirik.*

*Aita: Ez ote zen ba, oztopo, presidente izateko?*

*Aita: Familia...*





# EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK

Familia honentzat, desgaitasuna ez da arazoa, ametsak, erronkak betetzeko. Balio oso garrantzitsua da.

*\*Osatu esaldia: "familia..." (zeure esperientzia eta beraien egoera kontuan hartuta)*

*\*Familian iritzi berak ez badituzue, zer egiten duzue? Kide guztiok hitz egiten duzue horri buruz ala bakartu egiten zara?*

*Eszena 1.01.00min – 1.02.15min*

*Gabrielek arduratuta dauka Paula: auto-istripua izan berri du eta, gainera, kurtso bukaerako funtzioa bertan behera utziko du. Paula Gabrielengana hurbiltzen da, babesa emateko eta argi hitz egiteko.*

*Gabriel: Zeri begira zaude?*

*Paula: Ezer, ez diot ezeri begiratzen.*

*Edo nahi dudanari begiratzen diot. Ez zoaz eskolara?*

*Gabriel: Arin ulertzen duzu.*

*Paula: Baina, ondo zaude? Auto-istripuarengatik eta... (...)*

*Ez da nire errua zuri ahotsa aldatu izana.*

*Gabriel: Zeri buruz ari zara?*

*Paula: Zergatik utzi duzu funtzioa?*

*Gabriel: Zuk, ez duzu inoiz tontokeriarik egiten?*

*Paula: Ez, lehen aldía da eskolara joaten ez naizena, txepela naiz.*

*Gabriel: Zure gurasoak zutaz arduratzen direlako da hori.*

*Paula: Bai, bueno, zuri gutxienez aitak bizitzen uzten dizu.*

*Gabriel: Edo nitaz paso egiten du... nire amonaren autoa hartu eta Parisera joango gara?*

*Paula: Bai, horixe...*

*Gabriel: Ez da nahi duzuna?*

*Paula: Benetan ari zara? Ezin dugu, erotuta zaude.*

*Gabriel: Zergatik ezin dugu? Ez zara ausartzen...*

*Paula: Zu bai tipoa...! Amonaren autoa hartu eta errotondaz errotonda zabilta gida-baimenik gabe.*

*Gabriel: Bagoaz?*

*Paula: Ai ama!, horrela konpontzen dituzu zure arazoak...*

*Gabriel: Baina, zertan ari zara?*

*Paula: Banoa, ez dut hanka sartzerik nai...*



*\* Nori azaltzen dizkiot niretzat garrantzitsuak diren gauza horiek?*

# IKUSIZ IKASI

## X SEMANA DE CINE ESPIRITUAL



*\* Nortzuk dira babes-laguntzak zerbait egin gura dudanean?*

*\* Hori islatzen duen familiako gertaera edo egoeraren bat aipatu.*

*Eszena 1.07.53min – 1.09.57min*

*Paula: Ama, baina, zertan ari zara?*

*Baia ama, ezin zara horrela jarri. Utzi laguntzen.*

*Ama: Ez naiz ama ona izan zuretzat. Familiaren balioak zuri transmititzen saiatu naiz. Baina ez geunden uhin-luzera berean. Ni gorra naizelako. Neure errua da. Porrot egin dut.*

*Paula: Baina... ez zara hain ama txarra. Alderantziz, denek amesten duten ama zara.*

*Ama: Eta, zer dela-eta Parisera joateko nahi hori?*

*Paula: Ama...*

*Ama: Nik azkeneraino lagundu behar dizut. Zer galdu dut?*

*Paula: Baina, ez da hori. Zuri, aitari, irakatsi didazuenera esker hartu ahal izan dut erabaki hori. Zeuok eman didazue giltza.*

*Ama: Jaio zinenean eta entzuten zenuela esan zidatenean... Gogoratzen duzu? Hainbeste negar egin nuen! Inoiz ez ditut entzuleak jasan! Zure aitak kontsolatu eta esaten zidan: "E kezkatu. Bere buruan gorra izango da. Gorra balitz bezala haziko dugu. Zorte apur batekin, ez du ezer entzungo. Eta orain abestu egiten duzu? Behi-esnari alergia izatea falta zaizu bakarrik! Akabua litzateke!*

*Paula: Neure bizitza osoan gazta saltzera kondenaturik nago eta gorra izateko zoria izan ez dudalako. Hori da? Hori ikusten duzue begiratzen didazuenean? Eta zuk, ez diozu ezer?*

*Aita: Zertarako? Tira, zoaz, konponduko gara biok.*

*\* Sentitu duzu noizbait zure familiako norbaiti huts egin diozula?*

*\* Nola sentitu zara?*

*\* Zein babes izan duzu eta zer egin duzu egoerari buelta emateko?*

*\* Zure familia, nola kokatu da?*



# EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA

## ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK

Delako eszena batean, alabari joaten utzi behar diola ulertzen du Rodolphek. Paularen lehen kontzertua bukatzeaz batera, alabaren ahotsa ezin entzunda etsita, gauaren erdian kantatzeko eskatzen dio, berak, bitartean, eskuaz eztarria ukitzen dion bitartean (1.22.12 – 1.24.04 eszena). Ahots-korden bibrazioa sentitzeak begiak irekitzen lagunduko dio eta, jarraian, alabari joaten utzi behar duela ulertuko du, izan ere, benetan nahi duena, Paularen zoriona da. Komenta ezazue guzti hori.

Bere bizimodua aurrera eramatea erabakitzen duen baina, aldi berean, familian bizi den maitasunari eusten dion pertsonaren emozioak biltzen dituen azken abestia entzun berriz ere.

*\* Nola sentitu zara?*

## 5. BEGIRADA SINESTEDUNA

Izan ere, gorputza bat den arren, atal asko ditu, eta ez dute atal guztiak eginkizun bera; berdin guk ere: asko garen arren, Kristorekin elkarturik gorputz bat egiten dugu eta guztiok bata bestearen atal gara. Dohain ezberdinak ditugu, Jainkoak eman nahi izan dizkigun araberakoak. Beraz, Jainkoaren izenean mintzo denak iragar beza Jainkoaren hitza sinesmenari dagokionez. (Erm.12, 4-6)

**Zein dohain antzematen dut neure buruarengan, neure familian?**

**Jainkoaren Hitzaren arabera, denok gara garrantzitsuak, nahiz eta gaitasun, dohain... desberdinak izan. Nola laguntzen dut, nire familiakoek, nire adiskideek beraien gaitasun eta dohainak gara ditzaten?**

**Zer egiten dut nire inguruko desberdinek beraien dohain eta gaitasunak gara ditzaten?**

“Zuok , guztiok duzue kutxatxo bat eta barruan altxorra dago. Atera altxorra, hazten lagundu eta besteei eman. Gurariko bakoitzak altxorra du barruan. Altxorra erdibanatzen badugu... biderkatu egiten da besteengandik datorrenekin... Ez ezkutatu altxorra. Zuok egiten duzuenak denoi laguntzen digu, bizia altxorra dela eta emanda bakarrik dela zentzuzkoa ulertzeko... Ez dugu zailtasunen aurrean beldurtu behar. Denbora, argitasuna eta ausardia baizik ez ditugu behar”.

(Frantzisko Aita Santuaren topaketa desgaitasuna duten haurrekin. 2015eko otsaila)



**Bat zatoz Aita Santuaren hitzekin? Esan zergatik.**